

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskal Herri osoko lehen azterketa soziolinguistikoa

Maiatzaren 5ean Euskararen Jarraipena liburua aurkeztu zen Donostian. Liburu honetan, Euskal Herriko hiru lurraldeetan (Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroan eta Iparraldean), 1991n egin zen lehen soziolinguistikako inkesta handiaren emaitza nagusiak eskaintzen dira euskaraz, gazteleraz eta frantsesez. 5.000 euskaldun eta erdaldun baino gehiagok parte hartu zuten inkestan. Azterketan batera egin dute lan Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak.

Inkesta hau soziolinguistika arloko planteamendu berrienen ildotik landu da. Inkestan, bestalde, hizkuntza gaitasuna, erabilera eta jarrerak neurtzen dira.

· Gaitasuna. Euskal Herriko biztanleen %22k ondo egiten du

euskaraz, eta %8k zeozer hitz egiten du, edo ondo ulertzen du.

· Erabilera. Euskaldunok leialtasun handia diogu euskarari.
· Jarrerak. Biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen alde daude.

Arduradunek azaldu zuten, argi azaltzen da azterketa honetan euskararen aldeko hizkuntza politikarik dagoen tokietan euskara sendotu edo berreskuratzen ari dela. Eta alderantziz.

Liburuaren 3.000 ale egin dira eta salgai daude liburutegietan. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, bestalde, liburuaren laburpena egiten duen doaneko foiletoa atera dute.



Agintariak UEMA egunean, Bermeon

UEMAk 100.000 bizilagun bildu nahi ditu epe ertainera

Udal Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Bermeon ospatu zuen UEMA Eguna, maiatzaren 7an. Bermeo da, hain zuzen, UEMAn sartu den azken bazkidea: 22.a, eta mankomunitateko herririk populatuena. Ospakizunak festa giroan egin ziren, kide diren herri guztietako ordezkariak, EKB eta Hizkuntza Politikarako sailburuorde berria ere tartean zirela.

UEMA Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat herri euskaldunek sortu zuten 1992an, eta, gaur egun, 37.000 bizilagun biltzen ditu. Helburu nagusia du gaztelerak udalherri euskaldun hauetan betetzen dituen funtzioak euskararentzat bereganatzea. UEMAk kontuan du biztanleen %75 euskaldun diren udalherrietan 180.000 lagun bizi direla. Hori dela eta, epe ertainera 100.000 bizilagun bildu nahi ditu. Horretarako, datorren irailean, proposamena bidaliko die udalherri euskaldun guztiei UEMAn sar daitezten.



Kepa Altonaga, euskal unibertsitatearen bila

Kepa Altonaga, 37, irakasle loiotarrak bi unibertsitatean egin du lanik handiena: Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) eta Udako Euskal Unibertsitatean (UEU).

- EHU Un Biologia ikasi zuen. Lizentziatu eta gero Zoologia eta Euskara Teknikoa irakasten hasi zen hango Zientzi Fakultatean. 1988an doktore bilakatu zenetik doktoradutza ikastaroetan ere ematen ditu eskolak. Ikerkuntza lanak ere egiten ditu bere departamentuko lankideekin. 1993an hain zuzen, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak Munibe saria eman zion departamentuari.

- UEUn 1978an hasi zen. Harez gero, inoiz ez du hutsik egin, ikasle gisa, arduradun bezala edo zuzendari



Kepa Altonaga

moduan. Lau urte daramatza zuzendari lanetan eta erreleboaren ordua dela uste du. UEUren kongresuan hartu diren erabakiek

emaitza positiboak izango dituztela dio. Ez du kontraesanik ikusten UEU eta Euskal Herriko gainerako unibertsitateen artean: "UEUn gabiltzan gehienak beste unibertsitateetako kideak gara, kezka berezi batekin lanean ari garenak". Gaur egun hainbat zerbitzu euskaraz eskaintzen dituen unibertsitate erdaldunetik -"eman diren aurrerapausuak,

hala ere, ezin dira ahaztu"- euskara hizkuntza normalizatua izango duen unibertsitate iristeko epe luzea ikusten du, eta, tartean, lan ikaragarria egin beharra, azpiegiturak, ohiturak eta sareak lortu ahal izateko.

Euskara Agerian

Seinalakuntza Zerbitzu Publiko eta Pribatu izenarekin, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak *Euskara Agerian* saileko bigarren liburuxka jarri du kalean.

Lehena orain hiru urte argitaratu zuen. Herrien izenak eta oinarritzko bide seinaleak zituen gai nagusi. Bi argitalpenon helburua da euskarari behar duen lekua ziurtatzea gaurko Ipar Euskal Herrian.

Oraingo liburuak hiru zati nagusi ditu: zerbitzu publikoak eta pribatuak; leku publikoak, tokien izenak eta hitz erabilgarriak; komertzioak, komertzioen izenak eta hitz nahiz adierazpide erabilgarriak. Hitz zerrendak frantsesez eta euskaraz datoz.

"Dokumentu honi esker, agian, euskarazko hitz eta erranaldi gehiago ikusten eta irakurtzen ahalko da gure herriko karrika, saltegi eta leku publiko guzietan", diote egileek. Hala izan bedi.

Aiarako udalak euskararen alde.

Aiarako lurraldea osatzen duten bost udalerrietako -Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo- alkateek euskararen aldeko agiria sinatu zuten Zaraoben, San Prudentzio egunean. Aurretik, udal guztiek onartu zuten agiria gehiengoz, osoko bilkuretan. Alkateak, bestalde, alderdi desberdinetakoak dira.

"Milabidai" bildumak beste 6 ale kalean.

Erein argitaletxearen Milabidai bilduman, aurki, beste sei ale plazaratuko dira. Irakurleak Epikuro, Joxemari Iturralde, Raymon Chandler, Jack London, Toni Morrison, Cortázar, Benedetti, Monterroso eta Galdeanoren kontakizun laburrak irakurtzeko parada izango du. Hauxe da Milabidaik ateratzen duen bigarren sorta. Kalean izango da udarako.

BAM berripapera

euskaraz. BAM deritzan inguruan, Baionak, Angeluk eta Miarritzak osaturikoan alegia, BAM izeneko berripaperaren bigarren zenbakia argitaratu du Baionan Euskaraz Bizi elkarteak. Mattin Larzabal kazetariak zuzentzen du lau orrialdeko berripaper hau. Bi hilabetez behin kaleratzen da, eta doan banatzen zaie harpidedunei. Berri gehiago: BAM, Tonneliers 4, 64100 Baiona.

Euskal idazle

emakumezkoak.

Kathleen McNermey eta Cristina Enríquez de Salamanca irakasleek Double Minorities of Spain (Espainiako Gutxiengo Bikoitzak) izeneko katalogoa argitaratu dute New Yorken. Katalanez, galegoz eta euskaraz idatzi izan duten emakumeen berri ematen du. Euskal Herriko 17 emakume idazleren berri ematen da katalogoan. Datuak 1987ra bitartekoak dira.

Euskara aztergai EHUren XIV. Udako Ikastaroetan

Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatzen dituen XIV. Udako Ikastaroetan jakintzaren gai zabal eta interesgarriak jorratuko dituzten 53 ikastaro eta mintegi egingo dira, uztailaren 4tik irailaren 8ra bitartean.

Horietaiko bi ikastarok euskara izango dute aztergai nagusi.

• **Hizkuntza Plangintza Herri Administrazioetan** ikastaroa IVAP/HAEEK eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolatu dute. Iñaki Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean, komunitate elebidunetako funtzionarioen hizkuntza eskubideak eta betebeharrak aztertuko dira. Halaber, estatuko herri administrazioetan, eta, bereziki Hego Euskal Herrian egin diren hizkuntza politikak jorratuko dira, bai eta agerturiko arazoen azterketa juridikoa egin, hizkuntzen erabileraren araudiak aztertu eta lanpostuetan duten eragina ikusi ere. Uztailaren 20an eta 22an izango da.

• **Euskara Biziberritzeko Saioak.** Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren laguntzaz antolatutako ikastaro hau Iñaki Martínez de Lunak zuzenduko du. Joshua A. Fishmanek egindako ekarpena abiapuntutzat hartuta, Euskal Herriko hizkuntza egoeraren balioespena egin eta etorkizunerako ildoak proposatzea du helburu.

Uztailaren 17an hizlari hauek esku hartuko dute: Richard Y. Bourhisek, Miren Azkaratek, Antton Iñurrategik, Xabier Elortzak eta Iñaki Arrutik.

Uztailaren 18an, ostera, Xabier Aizpuruak, Mikel Zalbidek, José Félix Díaz de Tuestak eta Juan Gartzia hartuko dute hitza. Bukatzeko, mahaingurua egingo da, ikastaroaren gai nagusiaren gainean.

Matrikula eskariak Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidali behar dira. (1.042 postakutxa, 20080 Donostia). Argibideetarako telefonoa: (943) 21 95 11.

Inazio Mujika Iraola, 32, idazle donostiarrak Kritikaren saria jaso du euskarazko narratiba sailean Hautsaren Kronika liburuarekin. Orain artean ipuingintza landu du batik bat; Azukrea Belazeetan eta Linkon argitaratuta ditu. Ignacio Aldekoa (1990) eta Irun Hiria (1992) sarien irabazle izan da.

Juan Kruz Igerabide, 39, idazle adunarrak Kritikaren saria irabazi du euskarazko poesia sailean Sarean Leiho lanarekin. Maisua eta Filologian doktorea da eta, urte askotan haur eta gazteekin lanean aritu ondoren, gaur egun Euskara Teknikoa irakasten du EHUen. Poesia eta ipuinak ditu genero gustokoenak.

Koldo Biguri, 32, itzultzaile eta interprete gasteiztarak Ignacio Aldekoa saria irabazi du Halabeharraren Lerroak lana dela eta. Euskal Filologian lizentziatua EHUen, literatura itzulpen asko eginak ditu. 89an Donostia sariko hirugarren saria irabazi zuen.

Argitalpenak

Euskara Nafarroan

Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak argitaratu du. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren azterketan oinarriturik plazaratu den lehen argitalpena da. Hizkuntzaren ezaguera, ama hizkuntza eta erabilera ditu aztergai. Ezaguerari dagokionez, 1986tik Nafarroan eman den bilakaera aztertzen du.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:.....
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka


Euskaltzaindia

G. Zertan da herri aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko aurre-akordioa?

E. Jadanik begiz jo dira 1995erako proiektuak, zerbitzuak eta dirulaguntzak.

Bestalde, datozen hilabeteetan, pertsona bat izendatuko da erakundearen kudeaketaz arduratzeko, eta, halaber, Euskaltzaindiaren egitasmoak, funtzioak eta egoera juridikoa landuko dituen lan batzordea eratuko da.

Azkenik, nire poza adierazi nahi dut hartutako akordioak direla eta, herri aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarriketarako bide egokia berreskuratu baita.



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia.

Euskara eta CD-ROM teknologia

Euskara sartzen ari da teknologiak eskaintzen dituen eremu berrietan. Azkenaldi honetan, hainbat saio egin dira teknologia multimedia erabiliz:

- **Ezagutu Gipuzkoa.** Elhuyar elkarteak prestatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz. Mac ordenadoreetan erabil daiteke.

- **Europa Hiztegia.** Adorez taldeak eta *Aurten Bai* Fundazioak prestatua.

- **Munduko Atlas Elektronikoa.** Elhuyar elkarteak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat prestatu du. Uztailean izango da kalean. Jokoak izango ditu, ikasleek jokoan bidez ikas dezaten.

- **Euskara, Gure Hizkuntza** Eskoriatzako Irakasle Eskolak prestatu du, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren enkarguz. Disko

konpakto honetan euskararen ikuspegi soziala, soziolinguistikoa eta araubidea bilduko dira: Joseba Intxaustiren *Euskara Euskaldunon Hizkuntza* liburua, euskaraz, gaztelera eta frantsesez; *Euskararen Jarraipena* liburua, hau ere hiru hizkuntzatan; horrez gain, euskararen araubidea, gaurdainokoa hain zuzen, jasoko da; baita Euskararen Aholku Batzordearen irizpideak ere. Kaleratze dago. PC eta Mac ordenadoreetan erabili ahal izango da.

- **Asmo berriak.** Elhuyar elkarteak *Ezagutu Araba* egiteko asmoa du, Arabako Foru Aldundiarentzat eta gero Euskal Herriko gainerako herrialdeei buruzkoak.

Horrez gain, Eusenor ere produktu entziklopedikoak atera nahi ditu CD-ROMen.

✓ Kontutan hartzeko

- **Soziolinguistikazko Jardunaldiak.** Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatu ditu. Ekainaren 7, 8 eta 9an izango dira, arratsaldeko 7:30etan, Nafarroako Museoa. 7an Joan Maria Romanik hitz egingo du. 8an Richard Y. Bourhisek eta 9an mahaingurua, hizlari hauekin: Alejandro Arizkun, M. José Azurmendi, Juan José

Eguisoain eta Pello Salaburu. Jardunaldi hauen barruan, ekainaren 6an, Euskara Nafarroan liburua aurkeztuko da, 19:30etan, Navas de Tolosa kaleko 21ean. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikoak aztertzen ditu.

- **Araba Euskaraz.** Ekainaren 18an, igandez, izango da, Gasteizen, Armentia ikastolak eraturik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA